

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

234

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 13koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez Euskal Kultura Ondarearen balioa nabarmentzeko eta zabaltzeko dirulaguntzak ematen baitira.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko irailaren 11ko Aginduaren bidez (irailaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 185. zk.), Euskal Kultura Ondarearen balioa nabarmentzeko eta zabaltzeko dirulaguntzen deialdia arautu zen, eta dirulaguntza horiek emateko araubidea ezarri zen.

Eskabideak aurkezteko epea, aipaturiko aginduaren 9. artikulua araberako, 2019ko urriaren 31n amaitu zen.

Aginduaren 14. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea bildu eta eskabideak aztertu ondoren, laguntzak esleitzeko ebazpen-proposamena eman zuen 2019ko azaroaren 27an, eta horrekin batera, aginduaren 16. eta 17. artikuluen araberako balorazio-irizpideak aditzera eman zituen.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita eta aginduaren 18. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ez onartzea I. eranskinean adierazitako eskabideak, bertan zehaztutako arrazoiengatik.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei bertan adierazitako dirulaguntzak ematea.

Hirugarrena.– III. eranskinean zerrendatzen diren pertsona eta erakundeei eskatu duten dirulaguntza ukatzea, behar besteko puntuaziorik lortu ez dutelako.

Laugarrena.– Onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen mende geratzen dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Bosgarrena.– Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2021eko abenduaren 31n bukatuko da, dirulaguntza haiek arautzen dituen Aginduaren 7. artikuluaekin bat etorritik. Dena dela, diruz lagundutako proiektuek 2019ko urtealdian hasi behar dute edo dagoeneko hasita egon behar dute.

Emandako dirulaguntzen justifikazioa, likidazioa eta ordainketa egiteko, aginduaren 22., 23., 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Era berean, kontuan hartu beharko da diruz lagundutako proiektuak, gehienez ere, data hauetarako justifikatu beharko direla:

– 2019an gauzatzekoak diren proiektuak: 2020ko urtarrilaren 15a baino lehen.

– 2019-2020 epealdian gauzatzekoak diren proiektuak: 2019an gauzatutako jarduerak 2020ko urtarrilaren 15a baino lehen; 2020an gauzatutako jarduerak, berriz, 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen.

– 2019-2021 epealdian gauzatzekoak diren proiektuak: 2019an gauzatutako jarduerak, 2020ko urtarrilaren 15a baino lehen; 2020an gauzatutako jarduerak, 2021eko urtarrilaren 15a baino lehen, eta 2021ean gauzatutako jarduerak, 2022ko urtarrilaren 15a baino lehen.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatzeko, eskabidearekin batera aurkeztu den aurrekontua hartuko da ardaztat, eta, horrekin batera, aginduaren 24. artikuluan ezarritako gainerako alderdiak.

Seigarrena.– Agindu honen babesean eman beharreko dirulaguntzak zatika ordainduko dira, era honetan:

– Lehenengo zatian, emandako dirulaguntzaren herena ordainduko da, behin 22.1 artikuluan aipatutako epea igaro ondoren, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

– Gainontzekoa ebazpen honen II. eranskinean ezarritako zatikatzearen arabera ordainduko da, gastua justifikatu ondoren.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua ezartzen duenarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 13a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

I. ERANSKINA

ONARTU EZ DIREN ESKABIDEAK

I.1.– Eskabidea Agindu arautzailearen 9.1 artikuluan aurreikusitako hilabeteko gehieneko epetik kanpo aurkeztu delako:

Eskatzailea	Jarduera
Valle de Trápaga-Trapagarango Udala	Recuperación del caserío Aiestaran. Fase 2: Urbanización de la parcela vinculada

2020ko urtarrilaren 20a, astelehena

II. ERANSKINA
ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Onuradunak	Jarduera	Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa	Emandako Zenbatekoa	2019	2020	2021
Abar Kultur Elkarteak	Puesta en valor y difusión de la Estación Megalítica Landarbaso, en el Conjunto de Igoín-Akola	74.591,80 ¹	63.403,00	21.134,33	21.134,33	21.134,34
Anoetako Udala	Basegain Burdin Aroko herrixkaren perimetroa balioan jartzea	11.965,80 ¹	10.171,00	3.390,33	3.390,33	3.390,34
Arrasateko Udala	Kulturola zaharberitzeko proiektua	4.140.969,39 ²	200.000,00	66.666,67	66.666,67	66.666,66
Balmasedako Udala	Puesta en valor y recuperación del Cerro del Castillo	106.625,00 ¹	80.470,00	26.823,33	26.823,33	26.823,34
Bermeoko Udala	Programa BARRISTU: recuperación de entornos degradados del Casco Histórico. Solar en Intxausti 15	26.635,73 ³	22.374,00	7.458,00	7.458,00	7.458,00
Getxoko Udala	Puesta en valor del salón de representaciones de las Galerías de Punta Begoña	338.004,80 ¹	169.002,00	56.334,00	56.334,00	56.334,00
Leintz-Gatzagako Udala	Leintz-Gatzagako ondare babes dokumentu guztiak (Dekretuak, Aginduak eta abar) elkar lotuko dituen Plan Zuzentzailea	59.955,50 ¹	29.955,00	9.985,00	9.985,00	9.985,00
Lezoko Udala	Jaizkibelgo II. dorrearen egonkortze, berrerrabilze, gizaritaraze eta balioan jartzeko	289.524,00 ¹	173.823,00	57.941,00	57.941,00	57.941,00
Laudioko Udala	Laudioko Erimualde Multzoko Monumentu –eta historia- ondarea ikertzea eta zabaltzea	48.900,00 ⁴	39.120,00	13.040,00	13.040,00	13.040,00
Mutiloako Udala	Mutiloako Errotatxo eraikina balioan jarri eta erabileraren berriak aurkitzea, bisitarientzako harrera gune eta erabileraren anitzeko espazio bihurtzeko	134.723,82 ¹	96.301,00	32.100,33	32.100,33	32.100,34
Sopuertako Udala	Puesta en valor de la Ferrería-Fondería Olabarrieta	131.850,00 ⁵	105.480,00	35.160,00	35.160,00	35.160,00
Urdulizeko Udala	Puesta en valor y sensibilización social del Cinturón de Hierro en el entorno de Santa Marina	60.880,15 ⁶	34.833,00	11.611,00	11.611,00	11.611,00
Zailako Udala	Actuaciones de mejora de la Ermita de San Pedro de Zarikete	29.000,00 ¹	18.850,00	6.283,33	6.283,33	6.283,34
Zambranako Udala	Puesta en valor y difusión del Conjunto Monumental de Portilla	163.063,00 ¹	139.810,00	46.603,33	46.603,33	46.603,34
Zeraingo Udala	Puesta en valor y restauración de los hornos de calcinación y reordenación de itinerarios del Coto de Aizpea	762.220,48 ⁷	189.740,00	63.246,67	63.246,67	63.246,66
Fundación V Centenario de la batalla de San Marcial	Por los caminos de 1522: el castillo de Gazteluzar y la puesta en valor de su patrimonio material e inmaterial	40.014,70 ¹	32.012,00	10.670,67	10.670,67	10.670,66
* Palacio García, Alberto	Puesta en valor del conjunto ferro-molinerio de Valdívian	129.016,56 ¹	90.312,00	30.104,00	30.104,00	30.104,00
Aranzadi Zientzia Elkarteak	Donostiako Ullia Parkean dauden Sorbordako eta Buskandoko ur-biltegiak osatzen duten Monumentu Multzoan gauzatu beharreko zaharberitze eta berrerrabilze lanak zehazten dituen proiektua	185.553,50 ¹	148.443,00	49.481,00	49.481,00	49.481,00
**Yrizar Velasco, Inigo	Puesta en valor e intervención en la Torre Zubieta	76.314,00 ¹	53.420,00	17.806,67	17.806,67	17.806,66
	GUZTIRA	6.809.808,23	1.697.519,00	565.839,66	565.839,66	565.839,68

* Jabe bakoitzak bere gain hartutako exekuzio-ehunekoa: % 75 Unai Sulibarria Santibáñez eta José Manuel Sulibarria Santibáñez, eta % 25 Alberto Palacio García.

** Jabe bakoitzak bere gain hartutako exekuzio-ehunekoa: %20 Iñigo Yrizar Velasco eta Amalia Fuertes Ortiz de Urbina, %20 José María de Yrizar Movilla, %20 Pedro Yrizar Velasco, %20 María Elena Velasco, %10 Santiago de Yrizar Maldonado eta %10 José María de Yrizar Maldonado.

- 1.– Aurkeztutako aurrekontu orokorrean jasotako jarduera guztiak (BEZa barne) diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira.
- 2.– Diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira eraikinaren barruko egokitzapen-obrei eta instalazioei dagozkien jarduerak (Kontratua Egikaritzeko Aurrekontua + BEZa), bai eta obra-zuzendaritzako ordainsariak ere.
- 3.– Diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira orubea egokitzeko obrak (Kontratua Egikaritzeko Aurrekontua + BEZa), eta kanpoan geratuko da Intxausti 15ean orubea eskuratzeari dagokion partida.
- 4.– Diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira hondeaketa arkeologikoari, bisita gidatuei, ibilbideei eta Ermualdeko monumentu-multzoari buruzko jardunaldiei dagozkien partidak. Gainerako jarduerak kanpoan geratzen dira, ez direlako babes bereziko edo ertaineko kultura-ondasun deklaraturako ondasunen gaineko jarduketak.
- 5.– Aurkeztutako aurrekontu orokorrean sartzen diren jarduera guztiak (BEZa barne) diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira, fibrozementuaren hodiaren ezabapena izan ezik.
- 6.– Diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean sartutako jarduera guztiak (BEZa barne), honako sentsibilizazio-jarduera hauek izan ezik: balioa emateko jardueren gida, inaugurazio-ekitaldia eta udalaren web-orria (Burdin Gerriko atala).
- 7.– Diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira obrei dagozkien jarduerak (Kontratua Gauzatzeko Aurrekontua + BEZa) eta obra-zuzendaritzaren eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioaren ordainsariak.

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

III.1.– Agindu arautzailearen 15. artikuluan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa (60 puntu) ez lortzeagatik:

Eskatzailea	Jarduera
Inklustart Kultura Integrala	Dantz Point Euskadi 2019-2021
M. ^a Teresa Murga Iznardi	Accesibilidad de la Torre de Murga (Aiara/Ayala)
Rodrigo M. ^a Varona Beltrán de Salazar	Puesta en valor del jardín del Conjunto Monumental de Villanañe (Valdegovía)